# Sagarrondoen loraldia ospatzeko, 'Udaberri giroan' ekitaldi ederraz gozatzeko tartea, gaur, astigartarrek

Kronika - Erredakzioa 2023ko mai. 27a, 00:00

ASTIGARRAGA


Sagardoetxeako sagastietan ospatuko dute 'Udaberri giroan' ekitaldia.

Arratsaldeko 17:00etan emango zaio hasiera 'Sagardo onenaren bila' emanaldiari, Sagardoetxeako sagastian.

Urteroko ohiturari eutsiz, gaur arratsaldean, sagarrondoen loraldia ospatzeko, musika, dantza eta antzerki ikuskizuna eskainiko dute Herri Eskolako antzerki ikasle, Astigar dantza taldeko dantzari eta Norberto Almandoz musika eskolako ikasleek. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da ikuskizuna, Sagardoetxeako sagastietan. Aurtengo emanaldia 'Sagardo onenaren bila' izango da; Sagardoetxeko bi langilek misio garrantzitsua bete beharko dute: «munduko sagardorik goxoena ekoiztea eta horretarako, sagarrik ospetsuenak aurkitu beharko dituzte».

Publiko guztientzat zuzendutako emanaldia da astigartar gatzetxoek gaur arratsaldean eskainiko duten emanaldia, eta bertaratzeko deia luzatu diete herritarrei: «gerturatu eta denok elkarrekin ospatuko dugu sagarrondoen loraldia».

15garren edizioaz geroztik antolatzen da emanaldia herriko kultur talde, herri eskola eta Sagardoetxeraen artean elkarlanean.

**Eguraldi txarra eginez gero, Erriberan**

Antolatzaileek azaldu dute eguraldi txarra eginez gero, ekitaldia Erribera Kulturgunean izango dela.

Kultura Astigarraga

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!

Erantzun












bezala' kontzertuko kartela

Hernanin eta Astigarragan

# Ikusienak



[Emaitza bikainak lortu dituzte CDHko korrikalariek]

Kronika - Erredakzioa

urt 09, 00:00 Hernani



[Lizeaga anaiek jantzi zuten Altzako Gabonetako Torneoko txapela]

Kronika - Erredakzioa

urt 09, 00:00

Astigarraga Hernani



[Giro ederra izan dute CDH Kanpusean]

Kronika - Erredakzioa

urt 09, 00:00 Hernani



[Miguel Lujanbiori aitortza egingo dio Musika Bandak inauterietan]

Kronika - Erredakzioa

urt 08 Hernani



[Gaur arratsaldean hasiko du Auzo Bira Hernaniko Gobernu Taldeak]

Kronika - Erredakzioa

urt 09, 00:00 Hernani



[Bihar amaituko da txotx irekierara joateko sarreren zozketan izena emateko epea]

Kronika - Erredakzioa

urt 09, 00:00

Astigarraga

## Kronika.eus

Dobera Euskara Elkartea
Larramendi kalea 11, Hernani
Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika[ABILDUA]kronika.eus

cc BY SA

*Codesyntaxek garatua*

HONI BURUZ LEGE OHARRA PUBLIZITATEA ARAUAK HARREMANETARAKO RSS

Gipuzkoako Foru Aldundia Hernaniko Udala Astigarragako Udala Ereñotzuko Auzo Udala GOIZUETAKO UDALA ARANOKO UDALA

TOKIKOM

Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA AIKOR AIURRI ALEA AMEZTI ANBOTO ANTXETA ATARIA BALEIKE BARREN BEGITU DEUSTUALDEA PREST ERLO TELEBISTA ERRAN EUSKALERRIA IRRATIA GEURIA GOIENA GOIERRI TELEBISTA GUAIXE HIRUKA KARKARA KRONIKA MAILOPE MAXIXATZEN NOAUA OIZMENDI TELEBISTA PLAENTXIA TXINTXARRI URIOLA UZTARRIA 28 KANALA

Gurean Plazanbazan Ttap

Tokikom publizitatea